

The International J. of Developmental Biology munduari begira

Garazi Andonegi Beristain

Elhuyar

Filadelfiako Zientzia Informazioaren Institutuak, ISIk, argitaratu dituen zerrenden eskutik iritsi zaigu *The International Journal of Developmental Biology* aldizkariaren berri. Gure artean ezezaguna izanagatik, nazioartean ospea duen argitalpena da, dudarik gabe. Izenez atzeritar dirudien arren, Leioan egiten den aldizkaria da eta garapen-biologian urteak daramatza gorengo mailan argitaratzen.

GRANADAKO UNIBERTSITATEAN BAZEN *ANALES DEL DESARROLLO* IZENENKO ALDIZKARI BAT gaztelania hutsean argitaratua. Aldizkari hura Espainian bakarrik zabalitzen zen eta Juan Aretxaga editore izendatu zutenean aldaketa baten

beharra sumatu zuen. *Anales del Desarrollo* aldizkaria eguneratu, lehiakorrako bilakatu eta mundu zabalera irekitzeko asmotan jaio zen *The International Journal of Developmental Biology*. Ideia hura Juan Aretxaga Euskal Herriko Unibertsitatera heldu zenean gauzatu zen, hau da, orain dela 14

urte. Bertan topatu zuen aldizkariak behar zuen laguntza guztia eta uste-kabea unibertsitateko zerbitzu editoriala mundu mailako proiektu batean murgildu zen. Aldizkari zientifiko onenen mailara iristea lan izugarria izan da eta, gainera, maiz kritikatu izan den lana.



ARTXIBOKA


Aldizkaria gaur egun garapen-biologiaren egiten den ikerketara zuzendua dago. Biologiaren barnean lehiakorrena den atala eta, hain zuzen ere, biologiaren eta medikuntzaren barnean adierazgarriena. Ingeles hutsez egiten da, hura baita nazioartean zientziaren hizkuntza eta zabalkuntzako tresna. Zabalkuntza horren lekuko dira aldizkarian idazten duten zientzialarien jatorriak: Alemania, Japonia, AEB, Kanada, Frantzia, Australia, Israel, Italia, Finlandia, eta abar. Guztiek aldizkariak atzerrian zenbateko oihartzuna duen adierazten dute.

“*ikerketa baten emaitza gehienetan aldizkari bateko artikulua izaten da*”

Kalitatezko kontrola

Ikerketa baten emaitza gehienetan ez da patente bat izaten, ezta txosten bat ere, aldizkari bateko artikulua baizik. Beraz, urtetako ikerketa baten emaitza aldizkarietan jasotzen da eta, aldizkariak duen ospearen arabera, ikertzaile gehiagok edo gutxiagok argitaratuko dituzte beraien lanak bertan. Aldizkariak ospe horri eusteko, ordea, argitaratu beharreko lanen aukeraketa zorrotza egin behar izaten du. Aukeraketa-prozesu horren irizpideak ezagunak dira nazioartean, baina oraindik orain Espainian ez dira aintzakotzat hartzen.

The International Journal of Developmental Biology-k, ordea, hasieratik aplikatu ditu irizpide horiek. Egileek artikulua lau kopia bidaltzen dizkiete eta horietatik hiru mundu mailan arlo horretan aditu diren hiru pertsonari igortzen zaizkie. Aditu horiek, anonimoko autoreentzat, hilabeteko epean gutxi gorabehera, artikulua inguru-



Espainian, Inpaktu Faktorearen eta Prestigio Faktorearen arabera lehena da euskal aldizkaria.

ko balorazioa ematen dute. Plazaratze-ko moduan badago, zuzenean kaleratzen da, baina, bestela, zuzendu beharreko atalak aipatuz iradokizunak bidaltzen dituzte. Iradokizunekin batera, egileari itzultzen zaio artikulua beharrezko aldaketak egin ditzan. Azkenik, artikulua berriz editoreen eskutara bidali eta argitaratu egiten da. Sistema horri *peer-review* deritza, eta mundu zabalean ezagutzen da.

Plazaratzen diren artikuluez gain, esan beharra dago ezeztatzen diren artikuluen asko daudela. Osperik handiena duten aldizkarietan, % 60-70 bitartekoa izaten da artikuluen ezeztapen-tasa, eta *The International Journal of Developmental Biology*-ren kasuan

% 40koa. Tasa horrek ez luke inoiz % 25etik behera egin behar kalitatezko zientzia-dibulgazioa egin nahi izanez gero. Tasa horrek, beraz, kalitatearekin eta ospearekin zerikusi handia duela esan daiteke.

Inpaktu Faktorea eta Prestigio Faktorea

Tasa horretaz gain, badira beste bi ere: Inpaktu Faktorea eta Prestigio Faktorea. *The International Journal of Developmental Biology*-ren ospea bi faktore horien arabera eman du ISIk. Sailkapen horietan, Espainian kaleratzen diren 1.000 aldizkarietatik 26 soilik onartzen dira. Horietatik, Leioako aldizkaria lehena da bi faktoreetan, baina


ez orain, baizik eta atera zenetik; hau da, duela 14 urtetik hona.

Faktore horiek datu objektiboetan oinarrituta daude. Inpaktu Faktorea kalkulatzeko, mundu zabaleko aldizkarietan artikulua bat zenbatetan aipatu den zenbatzen da. Artikulu baten amaieran erreferentzia- edo bibliografia-atalak egoten dira, eta bertan beste artikulua edo publikazioen berri ematen da. Datu horiek prozesu oso konplexu baten bidez jaso eta prozesatzen dira, eta urtean behin emaitza kaleratzen da. Artikulu bat beste idazki zientifikoetan aipatzen bada, ona dela pentsa daiteke eta artikulua guztiak onak badira, aldizkariaren Inpaktu Faktorea igo egiten da.

Bigarren faktoreak edo Prestigio Faktoreak lanen originaltasunari begiratzen dio. Hau da, argitaratzen diren

“zientzian kalitatea bultzatu nahi bada, kalitatezko aldizkariak behar dira”

artikuluetatik zenbat diren lan originalak eta zenbat aurreko lanen berrikuspenak. Beraz, bi faktore horietan goren maila izatea ez da erraza.




International J. of Developmental Biology garapen-biologiaren egiten den ikerketara zuzendua dago.

ARTXIBOKOA

Arazo nagusia

David J. Fogarty, Neurozientzietan doktorea EHUan, eta Juan Aretxaga, katedraduna, dira goi-mailako aldizkari honen erantzule eta beraiek aipatu dizkigute dituzten zailtasunik handienak. Arazorik larriena ez da artikulua falta, eta/edo artikulua zuzentzeko aditu-falta, baizik eta laguntza-falta. Orain arte aldizkariaren bulego editoriala bi pertsonen artean eramaten bazen ere, beste pertsona baten eta diru-laguntzen beharrean aurkitzen dira. Bi pertsonarekin ezinezkoa da geroz eta handiagoa den merkatuari erantzutea eta, gainera, azken urteetan aldizkariak Internet bidez zabaltzeko joerarekin, lan eskergea asko handitu zaie.

Mentalitate-aldaketa bat ere sustatu nahi dute: kalitatea kanpoan soilik aurki daitekeen ustea. Ikerketen emaitzak, hau da, gehienetan artikulua, kanpora ateratzen dira eta horrela ikerketa horien onurak ere kanporatu egiten dira, Alemaniara, AEBetara, eta abar. Zientzian kalitatea bultzatu nahi bada, ordea, kalitatezko aldizkari zientifikoak behar dira. Kalitatezko zientzia hori hemen ere egin daitekeela aski frogatua gelditu da, *The International Journal of Developmental Biology* aldizkariarekin. Beraz, ospea eta kalitatea bultzatzea gure esku dago. □



Bere arloko nazioarteko lehiakideen artean igotzen doa aldizkariaren ospea.